

# 37.

# Koldo Mitxelena

LITERATURA

LEHIAKETA

2026

8-18 urte bitartekoak

olerkia  
ipuina  
*komikia*  
bertsoa  
*mikroipuina*



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Euskara

[www.donostiaeuskaraz.eus](http://www.donostiaeuskaraz.eus)

1. Parte har dezakete: Donostian erroldatutakoek edo/eta Donostiako ikastetxeetan ikasten ari diren 8-18 urte bitarteko haur eta gazteek.
2. Adin kategoria hauek bereiziko dira:  
**B-** Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)  
**C-** Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)  
**D-** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)  
**E-** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)  
**F-** Batxilergoa eta Lanbide-heziketa (16-18 urte)
3. Bost lehiaketa mota izango dira, baina adin tarte guztietan ez dira denak eskainiko:  
**Komikia · Olerkia · Ipuina · Bertso papera · Mikroipuina**
4. Lehiaketako lanek euskaraz idatziak, originalak eta inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Baldintza hauetakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da egilea, horretarako epaimahaiak eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak berariazko erabakia hartu eta gero. Epaimahaiak, epaia publiko egin eta gero, frogatuko balu saritutako lanen batek ez duela baldintza horietako bat betetzen, jasotako sariak itzuli beharko ditu egileak.
5. Lanak bakarkakoak izango dira sail guztietan.
6. Parte hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du.
7. Beheko taulan jasotzen da adin talde bakoitzak zer lehiaketa motan parte har dezakeen eta baita adin tarte bakoitzari egokitutako lanen luzerak ere.

KATEGORIA	KOMIKIA	OLERKIA	IPUINA	MIKROIPUINA	BERTSOA
	Gutxienez	Gutxienez/Gehienez	Gehienez		Gutxienez/Gehienez
B	DIN A4: 4 lauki		2 orri (4.000 karaktere, zuriuneak barne)		3 bertso/12 bertso
C	DIN A4: 6 lauki	32 lerro/100 lerro	4 orri (8.000 karaktere, zuriuneak barne)		3 bertso/12 bertso
D	DIN A4: 6 lauki	40 lerro/100 lerro	5 orri (10.000 karaktere, zuriuneak barne)	100 hitz	4 bertso/12 bertso
E	DIN A4: 10 lauki	45 lerro/100 lerro	7 orri (14.000 karaktere, zuriuneak barne)	100 hitz	6 bertso/12 bertso
F	DIN A4: 10 lauki	50 lerro/100 lerro	7 orri (14.000 karaktere, zuriuneak barne)	100 hitz	6 bertso/12 bertso

8. Lanak ikastetxeetan edo Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuan (Konstituzio plaza 2, 20003 Donostia) aurkeztu behar dira,.
9. Parte hartzaileen lanak 15 egunez gordeko dira sari banaketa egiten den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori gaindituta, egileek ezingo dute lana berreskuratu.
10. Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du egilearen izena adieraziz. Lan hauek prentsa idatzian, ohiko argitalpen modura edota internet sarean eman ahal izango ditu ezagutzera.
11. Epaimahaia honako idazle, bertsolari edo marrazkilari hauek osatua izango da: Yolanda Arrieta, Beñat Gaztelumendi, Ana Malignon, Inaki Martiarena "Mattin", Inazio Mujika eta Arantxa Urretabizkaia. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Sarien behin betiko esleipena lanak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabetera egingo da, gehienez ere.
12. Aurkeztutako lanek epaimahaiaren ustez gutxieneko mailarik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke. Kategoria bateko lehiaketa mota batean saria eman gabe utziz gero, beste kategoria edo modalitate batean bi sari eman daitezke epaimahaiak hala erabakita.
13. Lanek **2026ko otsailaren 12rako** Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskuetan egon beharko dute.
14. Ipuina, mikroipuina, olerkia eta bertso papera lanak ordenagailuz, A4 neurrian tarte bikoitzez eta alde bakarretik idatzita aurkeztu behar dira. **Lan originala bakarrik aurkeztu behar da, kopiarik gabe.**
15. Lehiaketa mota guztietan lanak era honetan aurkeztuko dira:
  - a) Alde batetik egilearen fitxa eta bestetik lana.
  - b) Lanaren izenburua lehen orrialdean azalduko da goiko aldean.
  - c) Lanean goitizena, lehiaketa mota eta adin kategoria azalduko dira, eskuinean, goian.  
Egilearen izena ez da lanean inon agertu behar!
  - d) Ipuinaren kasuan karaktere kopurua ere jarri behar da.
  - e) Komikien kasuan, atzealdean jar daitezke datuak, lehen orrian lekurik ez badago.
16. Non eta nola entregatu lanak:
  - a) Ohiko bidetik:
    - Ikastetxeak lanak eta fitxak jaso, eta Euskara Zerbitzura ekarri (Konstituzio plaza 2, behe)
    - Ikastetxeak lanak eta fitxak jaso eta Euskara Zerbitzuari jakinarazi mezularia ikastetxera bidal dezan lanen bila.**Oharra: Ez sartu fitxa inongo gutun-azaletan, eta ez gratatu lanarekin batera. Fitxa letra larriz bete mesedez.**
  - b) Email honetara bidali lana eta fitxa (bertsoa, ipuina, poesia, e-komikia, mikroipuina): [kmlehiaketa@donostia.eus](mailto:kmlehiaketa@donostia.eus).  
Email bakoitzean egile baten lana edo lanak fitxarekin batera.
  - c) Posta arruntaren bidez: Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua (Koldo Mitxelena), Konstituzio plaza 2, behe, 20003 Donostia.
17. Sari banaketa **2026ko maiatzaren 23an** izango da Udalaren Pleno Aretoan eguerdiko 12:00etan.